

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 146/2017 FORU DEKRETUA,
abenduaren 5koa, zeinaren bidez ezartzen baitira
2018ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona
Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen
gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-
koefizienteak.
(BAO Abenduaren 19koa)**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketei dagokienez ezartzen duenaren arabera, erregelamendu bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da ondare-elementuen eskuratze-balioa. Horretarako, zera hartuko da, batik bat, kontuan: ea zer bilakaera izan duen kontsumorako prezioen indizeak ondare-elementuok eskuratu ziren egunetik eta ea zer bilakaera espero den elementuok eskualdatuko diren ekitaldirako.

Hori dela eta, 2018ko ekitaldian egiten diren eskualdaketetan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzen dira foru-dekretu honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren mendeandakoen ondare-irabazien edo -galeren zenbatekoa kalkulatzeko.

Beste alde batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan xedatzen denaren arabera, ibilgetu material edo ukiezinaren zein ibilgetuko inbertsioen ondare-elementuak eskualdatzetik lortutako errenta positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errenta horietatik honako hau kenduko da, eta betiere errenta horien mugarekin: eskualdatutako elementuari dagokienez, haren legezko azken egunerapen baimendutik edo, geroago eskuratua bada, elementua eskuratu zen egunetik gertatu den monetaren balio-galeraren zenbatekoa, erregela jakin batzuen arabera kalkulatu. Hona lehen erregela: eskualdatutako ondare-elementuen eta haiei dagozkien amortizazioen eskuraketa-preziora edo ekoizpen-kostua eta arau bidez ezartzen diren koefizienteak biderkatuko dira.

Beraz, foru-dekretu honen helburua da, batetik, arautegia garatzea eta, bestetik, 2018. urtean hasiko diren zergaldietan egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzea.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 5eko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2018. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketen xede diren ondare-elementuen eskuratze-balioa zehazteari buruz xedatzen duena betetzeko, ondoren adierazten diren eguneratze-koefizienteak aplikatuko zaizkie 2018ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei:

Ekitaldiak

Koefizienteak

1994 eta aurrekoak	1,611
1995	1,711
1996	1,648
1997	1,611
1998	1,576
1999	1,532
2000	1,481
2001	1,425
2002	1,375
2003	1,337
2004	1,298
2005	1,257
2006	1,215
2007	1,182
2008	1,135
2009	1,132
2010	1,113
2011	1,080
2012	1,055
2013	1,039
2014	1,037
2015	1,037
2016	1,037
2017	1,015
2018	1,000

Bi. Hala ere, ondare-elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratua bada, 1995eko koefizientea aplikatuko da.

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan 2018. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak

Bat.2018. urtean hasiko diren zergaldietan, honako hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan aurrez ikusten diren koefizienteak:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak	2,489
1984	2,261
1985	2,087
1986	1,965
1987	1,872

1988	1,788
1989	1,702
1990	1,636
1991	1,581
1992	1,534
1993	1,520
1994	1,491
1995	1,423
1996	1,372
1997	1,349
1998	1,404
1999	1,354
2000	1,263
2001	1,245
2002	1,224
2003	1,206
2004	1,191
2005	1,170
2006	1,148
2007	1,108
2008	1,081
2009	1,069
2010	1,067
2011	1,054
2012	1,045
2013	1,039
2014	1,039
2015	1,033
2016	1,025
2017	1,013
2018	1,000

Bi. Hona nola aplikatuko diren goiko zenbakian ezarritako koefizienteak:

- a) Eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondare-elementua zein urtetan eskuratu edo ekoitzi zen kontuan hartuta. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzok egin diren urteari dagokiona izango da.
- b) Amortizazioen gainean, egin diren urteko kontabilitatearen arabera.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru-dekretu hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2017ko abenduaren 5ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,

UNAI REMENTERIA MAIZ